



DURANGO TOKIKO AGENDA 21: IRAUNKORTASUNERAKO UDAL PROZESUA

II. DOKUMENTUA: IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA



2006ko azaroa



DIAGNOSTIKOAREN OSAKETAN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK

Durangoko Udala

Juan Jose Ziarrusta Campo. Alkatea
Aitziber Irigoras Alberdi. 1go alkateordea
Ander Gorrotxategi Legarra. 2. alkateordea
Juan José Agirre Barruetañña. 3. alkateordea
Sara Oceja Salazar. Zinegotzia
Maria José Balier Orobiourrutia. Zinegotzia
Juan Ignacio Martínez Orea. Zinegotzia

Aitor Larruzea. Tokiko Agenda 21en teknikari koordinatzailea

Beste Administrazio eta Erakundeak

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa IHOBE A.B.
Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saila
Mendien eta Ingurumen Naturalaren Zuzendaritza
Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio saila
Errepideen Zuzendaritza Orokorra
Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila
Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketa eta Ingurumen Saila
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
Biodibertsitate Zuzendaritza
Ingurumenaren Planifikazio, Parte-hartze eta Kontrol Zuzendaritza
Uraren Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Energiaren Euskal Erakundea
Iberdrola SA
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Laguntza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, SA

Julen Rekondo. Teknikaria
Carlos Alonso. Teknikaria
Arkaitz San José. Teknikaria
Ibon Zugasti. Teknikaria
Mikel Irasuegi. Teknikaria
Olatz Errazkin. Teknikaria

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	2
2. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA	3
2.1 HELBURUAK	3
2.2 EGITURA ETA EDUKIAK	4
2.2.1 EKINTZA-PLANAREN EGITURA	4
2.2.2 EKINTZA-PLANAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	5
2.2.3 KARAKTERIZAZIO EKONOMIKOA ETA EKINTZAK BURUTZEKO ERANTZUKIZUNA	9
2.3 ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZEN LABURPENA, ETA HELBURUEN LEHENTASUNA	11
2.4 EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAK	18
3. JARRAIPEN PLANA	140
3.1 AURKEZPENA	140
3.2. IRAUNKORTASUNERAKO ADIERAZLEEN SISTEMA	140
3.2.1 EZAUGARRIAK	140
3.2.2 HAUTATZEKO IRIZPIDEAK	140
3.2.3 METODOLOGIA-ERREFERENTZIAK	141
3.2.4 PROPOSATUTAKO ADIERAZLEEN SISTEMA	142
3.2.5 ADIERAZLEAK DESKRIBATZEKO FITXAK	143

1. AURKEZPENA

Udalerriko Ingurumen Diagnostikoa behin eginda, Durangoko udalerriak aurre egin beharreko problematika eta mehatxu nagusiak zehazten dira eta baita, Tokiko Iraunkortasunerako Ekintza Plana edo Tokiko Agenda 21 osatzea bere baitan hartzen duten iraunkortasunerako irizpideak zehaztuta sortzen diren aukerak ere.

Udalerraren Diagnostikoa abiapuntu hartuta, hemen aurkezten den dokumentuak analisi horri erantzuteko garatu beharreko helburu eta ekintza multzoa biltzen ditu. Udalerraren garapen iraunkorragorako bidean aurreratzea da funtsezko helburua.

Proposatzen den ekintza eta jardueren helburuen multzoa Durangoren Iraunkortasunerako Ekintza-Plana deritzon biltzean bildu eta egituratzen dira, Udalerraren Agenda 21 prozesuaren oinarritzko elementua.

Dokumentu honen helburua Ingurumenaren Diagnostikoaren eta jardura helburuen arteko lotura egitea da, azken hauek lehenestea, Iraunkortasunerako Ekintza-Planeko edukien deskribapen zehatza egitea, eta ezartzeko prozesuaren jarraipena gauzatzeko Iraunkortasunerako Adierazleen Sistema aurkeztea eta deskribatzea.

Zentzu honetan, agiri honetan kontuan izandako kapituluak ondoko hauek dira:

DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA

Ondoko hauek barne hartzen ditu: Egungo egoeraren Diagnostikoa, udalerriak kontuan hartutako gaikako eremu bakoitzean dituen joerak eta, hortik aurrera, Ekintza Planean geroago islatuta agertzen diren jarduteko helburu erlazionatuen ezarpena.

IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA- PLANAREN AURRERAKINA

Durango Iraunkortasunerako Ekintza-planaren edukien deskribapena eta karakterizazioa barne ditu, Ildo Estrategikoen, Ekintza-programen eta Ekintzen azalpenaz zein deskribapenaz, eta Planaren karakterizazio zehatzez.

EKINTZA- PLANAREN JARRAIPENAREN AURRERAKINA (3. atala)

Eskema moduan, Durango udalerriko Tokiko Agenda 21 prozesuaren segimendurako diseinatutako Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemaren deskribapena eta karakterizazioa aurkezten da, udalerriko egoera eta Iraunkortasunerako Ekintza-planaren ezarpeneko garapen-maila urtean behin ebaluatzeko moduan.

2. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

2.1. Helburuak

Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren helburuak Iraunkortasunerako Hiri europarren Gutunean (Aalborg-eko gutunean) zehazten diren iraunkortasunerako gidari diren irizpideak jarraituz zehazten dira; eta sintetikoki horrela agertzen zaizkigu:

- Energiatzko, urrezko eta baliabide natural berriztagarrien kontsumo erritmo txikiagoa berezko ordezkatzeko sistemen gaitasunekin alderatuta.
- Baliabide ez berriztagarrien kontsumo erritmo txikiagoa baliabide berriztagarrien erritmoarekin alderatuta.
- Kutsatzaileen igorpen erritmo txikiagoa aireak, urak eta lurrak eurak absorbatu eta prozesatzeko gaitasunarekin alderatuta.
- Dibertsitate biologikoaren, osasun publikoaren eta ingurumen kalitatearen mantenua bizitza eta giza ongizate soziala, baita flora eta faunarena ere, mantentzeko nahikoa mailatan.
- Justizia soziala eta biztanleriaren oinarrizko beharrianen asebetetzea.
- Herriko garapen iraunkorrean biztanleriaren eta tokiko sektoreen parte-hartzea.
- Tokiko garapen ekonomikoa.


Iraunkortasunerako irizpide orokor hauek eta udalerriko Ingurumen Diagnostikoa kontuan hartzeak udalerrarentzat ekiteko helburu zehatzak definitzera garamatza. Helburu hauetatik abiatuz, eta euren hierarkizaziotik, Planaren helburu estrategikoak eta Ildo Estrategikoak zehazten dira, Ekintza-Planaren ardatz egituratzaileak direnak.

2.2. Egitura eta edukiak

2.2.1. Planaren Egitura

Iraunkortasunerako Ekintza-Planak egituraren lldo estrategikoen definizioa du oinarri, hauek osatzen dute Planak erantzun nahi dituen helburu estrategikoak.

Lerro estrategiko bakoitzak bere baitan ditu helburu zehatzak, Ekintza Programa gisa zehaztuak. Programa hauek zehazten dituzte ekintza multzo batek, hauek antolatuta daude erantzuten dioten helburu orokor eta zehatzaren arabera (ildoak eta programa), deskribapena, erakunde inplikatuak, kostu ekonomikoa eta langileena, diru-iturriak eta ezarri zaion lehentasun maila.



2.2.2. Ekintzen funtsezko ezaugarriak

Ekintzak dira Ekintza-Plana egituratzen eta definitzen duten oinarrizko unitatea, bakoitzak bere izaera du, hurrengo orrietan erakusten den moduan.

Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren diseinuan kontuan izan den ekintza kontzeptua zabala da, bere baitan izaera oso ezberdineko ekintzak hartu ditu eta modu honetan antolatu ahalko lirateke:

- **Kudeaketa**

Iraunkortasunerako bidean aurrerapausoak egitea ahalbidetzen duten udalaren kudeaketari lotutako ekintzak.

Adibidez: azpiegitura zehatz baten ingurumen eraginaren jarraipena egin, motorren akustikaren maila kontrolatzea, udalaz gaindiko herri erakunde baten esku hartzea eskatzea.

- **Hezkuntza eta parte-hartzea**

Iraunkortasunerako hezkuntzari lotutako ekintzak eta hiritarren eta tokiko komunitateko kide ezberdinen parte-hartzea bultzatzeko balio dutenak.

Adibidez: Kanpaina hezitzaileak eskoletan, Tokiko Agenda 21en jarraipena egiteko parte-hartzeko organo bat sortzea

- **Araudia**

Ingurunearekiko eragina, ingurumenaren kudeaketa edo iraunkortasunaren norabidean arituko diren prozesuak eta jarrerak, eta ingurumen kostuen eta onuren barneratzea errazteko arauak sortu edo moldatzea.

Adibidez: Eguzkitiko energia bultzatuko duten arauak osatzea, arauak udalaz gaindiko ingurumen araudi berrienera moldatzea

- **Fiskalitatea**

Iraunkortasunaren norabidean arituko diren prozesuak eta jarrerak, eta ingurumen kostuen eta onuren barneratzea errazteko fiskalitatea moldatzea.

Adibidez: Eguzkitiko energia jasotzeko instalakuntzak gauzatzeko lanen baimenean beherapen fiskalak egitea.

- **Ekipamenduak eta azpiegiturak**

Ekipamenduen eskuratzea edo azpiegiturak gauzatea eragingo duten ekintzak.

Adibidez: Ur arazketarako eraikuntza egitea, plaka fotovoltaiakoak ezartzea, bidegorriak eraikitzea

- **Iraunkortasun irizpideak barneratzea:**

Udalerrriaren kudeaketan edo Udalaren beraren funtzionamenduan ingurumen irizpideak kontuan hartzea eragingo duten ekintzak.

Adibidez: ingurumen irizpideak txertatzea hirigintza planeamenduan, udalak erositako produktuetan ingurumen irizpideak txertatzea, Udalaren funtzionamenduan jarduera egokia txertatzea

- **Azterketak**

Iraunkortasunari dagozkion problematikak, prozesuak edo eremuak hobeto baloratu eta ezagutzea ahalbidetuko duten azterketak osatzea edo Ekintza-Planak zehaztu ezin ditzakeen jarduerak bultzatuko dituzten ekintzak.

Adibidez: Errepideen inbentarioa egitea, konposterako instalakuntza baten bideragarritasunaren azterketa egitea.

EKINTZEN EZAUGARRITZEAN ERABILITAKO KONTZEPTUEN DESKRIBAPENA

KONTZEPTUA		DESKRIBAPENA
Kodigoa		Hiru zenbakik osatutako kodigoa, ildoaren, programaren eta ekintza beraren berri ematen duena.
Ekintza		Ekintzaren izenburua.
Ildoa		Ekintza kide den ildo estrategikoaren zenbakia eta izenburua. Ekintzaren helburu orokorra jasotzen du.
Programa		Ekintza kide den programaren zenbakia eta izenburua. Ekintzaren helburu zehatza jasotzen du.
Deskribapena		Ekintzaren oinarrizko definizioa eta izaera.
Exekuzio / ezarpen epea		Exekuzioa (momentuko ekintza baten kasuan) edo ezarpena (iraunkorki edo maiztasunez garatu behar den ekintza baten kasuan) egiteko gehieneko epea.
	Motza (0-1 urte)	Exekuzio / ezarpen epea motza izango dela zehazten du (0tik urte 1era).
	Ertaina (1-3 urte)	Exekuzio / ezarpen epea ertaina izango dela zehazten du (1tik 3 urtera).
	Luzea (3-5 urte)	Exekuzio / ezarpen epea luzea izango dela zehazten du (3tik 5 urtera).
Maiztasuna		Ekintzaren gauzapenerako proposatutako maiztasuna. Ekintza modu iraunkorrean gauzatu behar den kasuan "jarraitua" hitzarekin zehazten da.
Lehentasuna		Zehazten du proposatutako ekintza lehenesten den garrantzia handia duelako, ezaugarri gako batengan duelako eragina, bere ezarpena urgentea delako edo bere ezarpenak ondorio baikor ugari izango dituelako.
Aurreikusitako kostua		Ekintza exekutatu edo ezartzeko aurreikusitako kostua. Zehazten da langile gastuak kontuan hartzen diren ala ez, edo azterketa zehatza behar den baloratzeko.
Erakundeak		Ekintzaren exekuzioan edo ezarpenean esku hartzen duten erakundeak.

<i>Finantzaketa</i>		Ekintzaren finantzaketa ekonomikoan zerikusia duten edo izan dezaketen erakundeak.
Adierazleak		Ekintzaren zeharka edo modu zuzen batean harremanetan diren Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemako adierazleak.
Exekuzio kontrola		Ekintzaren garapen edo ezarpen maila zehazten du.
	Hasteke	Ez dira ekintzarekin lotutako jarduerak abiatu
	Hasita	Ekintzaren lehen faseak bete dira (proiektuaren fasea, beste inplikatuekin harremanak hastea...)
	Aurreratua	Ekintzaren lotura duten jarduerak egiten ari dira eta lehen faseak gainditu dira
	Amaitzen	Kategoria hau esleitzen zaio ekintzaren exekuzio kontrolaren urtean amaitzen diren inbertsioak direnean; edo maiztasun batez edo modu jarraituan garatu beharreko ekintza exekuzioaren aurretik ezartzen hasi denean.
	Amaitua	Kategoria hau esleitzen zaio exekuzio kontrolaren aurreko urtean amaitutako inbertsioak direnean; edo erreferentzia egiten dion problematika desagertu denean

2.2.3. Karakterizazio ekonomikoa eta ekintzak burutzeko erantzukizuna

Iraunkortasunerako Ekintza-Planak Udalak osorik edo zati batean finantzatutako ekintzak hartzen ditu kontuan. Esklusiboki Udalez gaindiko administrazioen eskumenekin lotutako ekintzetan, administrazio horren esku-hartzea eskatzeko Udalak egin beharreko eskariaren kostua soilik hartzen da kontuan.

Proposatzen diren ekintzen tipologia eta gai hetereogenitatearen ondorioz, kostuaren ezartze modua ere anitza da, honako kasu zehatzak zehazten dira:

- **Udaleko giza baliabideen kostua soilik duten ekintzak**

Udalan egun badauden giza baliabideen erabilpen mugatua eskatzen duten ekintzak, ez dutenak egungo kontratazio aldarazten, edo beste ekintza baten honezkero aurreikusita dagoen kontratazioa eskatzea, eta beraz kontabilitate bikoitza eragingo zuena.

Adibidez: Tokiko Agenda 21en organo eragilea sortzea

- **Kosturik gabeko ekintzak**

Dituzten ezaugarriengatik kostu ekonomiko zuzenik (edo nabaririk) eragingo ez duten ekintzak.

Adibidez: Hornitzaileen aukeraketan ingurumen irizpideak barneratzea.

- **Definitzeke**

Duten dimentsioaren eraginez proiektu teknikoa edo azterketa ekonomiko zehatza behar duten ekintzak.

Adibidez: Konposterako instalakuntza eraikitzea.

Ekintzetako bakoitzak euren finantzaketa potentzialera lotzen diren erakunde multzoa du. Erakunde ezberdinen finantzaketa lortzea Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren kudeaketarako funtsezko eginbeharra da Udal bakoitzarentzat.

ERAKUNDEEN KODIGOEN INTERPRETAZIORAKO GAKOA

UDAL	Durangoko Udala
TESE	Tokiko Eragile Sozial eta Ekonomikoak
EUS	Eustat
EEE	Energiaren Euskal Erakundea
IBE	Iberdrola
IHO	IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
IND	Industriak
INE	Instituto Nacional de Empleo – Enplegurako Institutu Nazionala
EJ	Eusko Jaurlaritza
BGP	Bizkaiko Garraioen Partzuergoa
MANK	Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

2.3 ILDO ESTRATEGIKOEN LABURPENA, PROGRAMAK ETA EKINTZAK PROGRAMEN LEHENESTEA

DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21

ILDO ESTRATEGIKOAK.

DURANGOKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

IE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA.

IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.

IE 3. UDALAREN GARAPEN SOZIALA BULTZATU.

IE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU.

IE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU.

ILDO ESTRATEGIKOAK, EKINTZA PROGRAMAK ETA EKINTZAK

DURANGOKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

IE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA

P 1.1. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko programa

- 1.1.1. Nekazaritza ekologikoa indartzea.
- 1.1.2. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako ustiapenak ezarri nahi dituztenei erraztasunak eskaintzea eta ekimen horiek bultzatzea.
- 1.1.3. Basoen ustiapen iraunkorra bultzatu

P 1.2. Udalerriko dibertsifikazio industrialia bultzatzeko programa

- 1.2.1. Industriaren egoera hobetzeko eskualdeko hausnarketa estrategikotik datozen ekintzak udalerrian abiaraztea.
- 1.2.2. Energia berriztagarriez arituko diren enpresen instalazioa bultzatu.
- 1.2.3. Birziklapenaz arituko diren enpresen instalazioa bultzatu.
- 1.2.4. Udalerrian artisauen industriak bultzatu.

IE 2. UDALAREN KUDEAKETA POLITIKA HOBETU

P 2.1. Udalerriaren kudeaketan parte-hartzeko bultzatzeko programa

- 2.1.1. Parte-hartze protokoloa adostu.
- 2.1.2. Aurrekontu parte hartzaileak egiteko modua aztertu.

P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa

- 2.2.1. Funtzionarioentzat arretarako protokoloa ezarri.
- 2.2.2. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta funtzioak aztertu eta beste enpresei azpikontratatzeko zaizkienak.
- 2.2.3. Hiritarren arretarako zerbitzua ezarri, eta bere izatea iragarri.
- 2.2.4. Tokiko Agenda 21 prozesuaren berri eman hiritarrei eta udal teknikariei parte-hartzearen garrantziaz.
- 2.2.5. Udalerriko eremu estrategikoetan interes orokorreko informazioa zabaltzeko panelak ezarri (Irungo adibidea aztertu).
- 2.2.6. Udalerriko web orria dinamizatu.
- 2.2.7. Udalaren eta interes orokorreko informazioa jasoko dituen aldizkaria egiteko aukera aztertu
- 2.2.8. Kontratazio publikoa iraunkortasun irizpideekin egitea: dimentsio sozial, etiko eta ingurumenezkoa (adibidez, energia berriztagarriak kontratatzea).

IE 3. UDALERRIAREN GARAPEN SOZIALA BULTZATU

P 3.1. Udalerrian bizi den atzerriarren edo etorkinen kolektiboaren integrazio sozialerako programa

3.1.1. Etorkinei eta udalerrian bizi direnei begirako integrazio planaren osaketa.

P 3.2. Hirugarren adineko pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko programa

3.2.1. Hirugarren adineko pertsonak eskaintzen duten potentzialitateari probetsua atera (denbora libre, euren ezagutzak...) boluntario lanen moduko ekimenekin,...

3.2.2. Hirugarren adineko pertsonen eta hauek zaintzen dituztenen bizitza kalitatea hobetzeko programa eta zerbitzuak abiaraztea.

3.2.3. Hirugarren adineko pertsonentzat ekintzak antolatu.

3.2.4. Politika horizontalak hartu Udalean, eremu guztietan hirugarren adineko pertsonak presente izateko.

P 3.3. Genero berdintasuna bultzatzeko programa

3.3.1. Gizonezko eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna bultzatu.

3.3.2. Hezkuntzaren bidez emakumezkoen eta gizonezkoen egiazko berdintasuna bultzatu.

3.3.3. Sentsibilizaziorako kanpainak burutu hiritarren artean.

3.3.4. Udaletik lengoaia neutroaren erabilpena bultzatu.

P 3.4. Euskararen erabilera bultzatzeko programa

3.4.1. Euskara transmititu.

3.4.2. Euskararen erabilera bultzatu eremu sozial denetan.

3.4.3. Hizkuntzaren kalitatea hobetu.

3.4.4. Tokiko Agenda 21eko Ekintza-Planeari txertatu Euskara Planeko ekintzak.

3.4.5. Aztertu zergatik Bizkaiko udalerrri batzuetan kalean egiten den euskararen erabilera garrantzitsua den eta Durangon kontrakoa gertatzen den.

P 3.5. Udalerriko pertsona gazteentzat programa

3.5.1. Araudia osatu etxabeen erabilpenaren inguruan.

3.5.2. Udal bizitzan pertsona gazteen parte-hartzea bultzatu.

3.5.3. Drogamenpekotasunaren (substantziak eta alkohola) inguruko diagnostikoa egin Durangon.

3.5.4. Autoritateen eskutik adin txikikoei alkohola saltzen dieten taberna eta dendeikiko kontrol zorrotza ezarri.

3.5.5. Liburutegiaren ordutegia zabaltu asteburuetan.

P 3.6. Udalerrian kultura eta aisialdia indartzeko programa

3.6.1. San Agustín antzokia berritu.

3.6.2. Udalerrian sortzen diren zinema ekoizpen ekimenak babestu.

P 3.7. Udalerrian asoziazionismoa bultzatzeko programa

3.7.1. Elkarleen eta Udalaren arteko eta elkarleen euren arteko komunikaziorako eta elkarlanerako bitartekoak ezarri.

3.7.2. Euren ekimenak egin ahal izateko aukerak (eremuen erabilera...) eskaini elkarleei.

3.7.3. Euren intereseko informazioa hedatzeko aukera eskaini udal web orrian elkarleei (egin behar dituzten ekintzak...)

3.7.4. Auzotarren elkarteak sortzea bultzatu eta daudenak indartu.

IE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU

P 4.1. Hirigunearen kalitatearen hobekuntzarako programa

- 4.1.1. Eremu berdeen beharren gaineko azterketa egin.
- 4.1.2. Zarata sortzen duten eremuen (industria, aisialdikoak...) eta alboko bizitegien arteko barrera fisiko eta bisualak ezarri.
- 4.1.3. Kalearen eta lorategien garbitasunaren inguruko sentsibilizazio eta komunikazio plana osatu.
- 4.1.4. AHT proiektuak udalerrian izango duen ingurumen inpaktuaren inguruko ebaluaketaren emaitzan hedatu.
- 4.1.5. Hiriko higigarrien egoera hobetzeko neurriak hartu.
- 4.1.6. Beste erakunde batzuen laguntzaz eskualdeko hirigintza planeamendua koordinatu.
- 4.1.7. Hirigintza planeamendua adosteko parte-hartze tresna berritzaileak ezarri.
- 4.1.8. Zakurren jabeak direnak eremu publikoak garbi izatearen garrantziaz kontzientziatu.
- 4.1.9. Herri lanak eta hirigintzak jarduerak arautzen dituen prozedura / protokoloa berrikusi, hiritarrei egiten zaien enbarazu txikitu asmoz.
- 4.1.10. Hautetsiak liberatzeko aukera aztertu jarduera publikoaren eraginkortasuna hobetzeko.
- 4.1.11. Genero ikuspegitik hirigunearen arrisku zonaldeak txikitu.

P 4.2. Eraikuntzan ingurumen irizpideak txertatzeko programa

- 4.2.1. Etorkizuneko eraikuntzei "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Eraikuntzara Iraunkorrerako Gidaren" aholkuak aplikatu.
- 4.2.2. Eraikuntza eta lanen baimenen jarraipena egin iraunkortasun irizpideen aplikazio mailari dagokionez.
- 4.2.3. Eraikuntzen erauztean sortutako hondakinen jarraipena egin.

P 4.3. Etxebizitzaren politika soziala bultzatzeko programa

- 4.3.1. Etxebizitza tasatua lehenetsi bestelako etxebizitza moten gainetik.
- 4.3.2. Etxabe hutsak etxebizitza gisa erabiltzeko aukera aztertu.
- 4.3.3. Aztertu lehen etxebizitza salneurri iraunkorrean eskaintzeko aukera.
- 4.3.4. Aztertu zergatik etxe hutsak dituztenek ez dituzten alokatu nahi.

P 4.4. Udalerriko irisgarritasuna hobetzeko programa

- 4.4.1. Eraikuntza eta hirigintza lanak exekutatzen dituzten eraikitzaileekiko kontrol zorrotza ezarri irisgarritasuna bermatzeko.
- 4.4.2. Irisgarritasun arazoak konpondu eraikin publikoetan (Astarloa, Udaletxea,...).
- 4.4.3. Irisgarritasunaren inguruan egin behar diren azterketetarako, mugikortasun ezintasunak dituztenen ikuspegia jaso.
- 4.4.4. Pertsonak sentsibilizatu eta ezagutzera eman oztopo arkitektonikoei zer zailtasun sortzen dituzten mugikortasun ezintasuna duten pertsonentzat.
- 4.4.5. Ostalariak eta merkatariak motibatu edo saritu irisgarritasuna bermatzeko moduan euren establezimenduak molda ditzaten.
- 4.4.6. Urtero Udalaren aurrekontuaren zati bat udalerriko irisgarritasuna hobetzeko zehaztu.
- 4.4.7. Udalaren baliabideen egokitzapena aztertu (teknikoak eta ekonomikoak) irisgarritasunaren eremuan egin beharrekoak eta dauden beharrak garatzeko.
- 4.4.8. Udalerriko parke mugikorrerako kontuan izan irisgarritasunaren eta ingurumen inpaktuaren aldagaiak.

IE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU

P 5.1. Ibaien ingurumen kalitatea hobetzeko programa

- 5.1.1. Udalerriko ibaien arroaren garbiketa lanak burutu.
- 5.1.2. Ur kutsatzaileen ibaietarako isurketa kontrolatu (batez ere egun euritsuetan).
- 5.1.3. Mañaria ibaitik hartutako ura kontrolatu, batez ere lehorte garaietan.

P 5.2. Uraren hornikuntza sarearen kudeaketan hobetzeko eta uraren kontsumoa txikiagotzeko programa

- 5.2.1. Uraren kalitatearen eta kontsumoaren gaineko datuen monitorizatzea eta zabalpena.
- 5.2.2. Udalerriko sarean ur ihesak murrizteko plana osatu.
- 5.2.3. Uraren banaketa sareko ihes maila erreala zehaztu.
- 5.2.4. Alderatu beste udalerrri eta eskualdeekin erabiltzaileei kobratutako sarearen mantenuaren kostua eta mantenduaren kalitatea.
- 5.2.5. Uraren kontsumoaren arrazionalizazio eta gutxitzerako neurriak hartu, bai instalakuntza publikoetan eta baita eremu pribatuan ere.
- 5.2.6. Uraren Partzuergoari Oiz Mendian dauden ur erretserbak aztertzea eskatu.
- 5.2.7. Erregario eta bidearen garbiketa lanetarako berrerabilitako ur ez edangarria erabili.
- 5.2.8. Uraren inguruko Foro izaerako bilera bat egin, Uraren Partzuergoko ordezkari baten azalpenekin.

P 5.3. Garraio publikoa hobetzeko eta mugikortasun iraunkorra indartzeko programa

- 5.3.1. Mugikortasun iraunkorrerako udalerriko plana osatu.
- 5.3.2. Garraiobide gisa txirrindua erabiltzea bultzatzeko neurriak hartu (segurtasuna ziurtatzeko neurriak, informazioa eta sentsibilizazioa...).
- 5.3.3. Udalerrri bizilagunekin koordinatuta oinezkoen zonaldeak hedatu.
- 5.3.4. Udalaz gaundiko garraio publikoaren kalitatea hobetzeko beste herri erakundeekin koordinazioa (Bizkaibus, Euskotren,...)
- 5.3.5. Hiriguneko autobus bat jartzeko aukeraren bideragarritasuna aztertu.
- 5.3.6. Udalerriko zonalde batzuetan (Landako, Juan Iziar...) trafikoa antolatzeke neurriak hartzea, bizilagunekin koordinatuta.
- 5.3.7. Norberaren ibilgailuaren erabilera mugatzeko neurriak hartzea.
- 5.3.8. Udaltzaingoak eta udaleko beste teknikariek Durangon zehar mugitzeko txirrindua erabiltzeko aukera aztertzea.
- 5.3.9. Bidegorrien sarea garatzea udal eraikinak, kirolletoak eta ikastetxeak lotzeko.
- 5.3.10. Mugikortasun iraunkorraren eremuan beste hiri batzuen esperientziak aztertu (Bordele, Iparralde,...).

P 5.4. Akustikaren eta atmosferaren kalitatea hobetzeko programa

- 5.4.1. Airearen kalitatearen datuen monitorizazio eta hedapena.
- 5.4.2. Industriak eta ibilgailuek egindako atmosferarako igorpenen kontrol neurriak.
- 5.4.3. Bizilagun komunitateek egindako gasolio erreketen kontrol neurriak.
- 5.4.4. Atmosferaren kutsatzaile nagusiak udalerrri mailan zein diren neurtzea.
- 5.4.5. Hotsen mapa osatzea eta proposatutako neurriak osatzea.
- 5.4.6. Atmosferaren eta akustikaren kutsaduraren aurkako eskualdeko jardura plana diseinatzea.
- 5.4.7. Akustikaren eta atmosferaren kutsadura eta osasun arriskuak zaintzeko Eskualdeko Kontseilua osatzea.
- 5.4.8. Azterlanen proiektuak Durangoko biztanleriaren artean eta herri erakundearen artean (Udala eta abar) hedatzea.
- 5.4.9. Akustikaren kutsaduraren Ikuskapen Sarea osatzea.
- 5.4.10. Akustikaren kutsaduraren aurkako neurrietan Udala eredu izatea.
- 5.4.11. Hotsen maparen osaketa prozesuan parte-hartzeko bide aktiboak ezarri.
- 5.4.12. Airearen Kalitatearen Plana abiarazi.

2. Iraunkortasunerako Ekintza Plana

P 5.5. Hiri hondakinen kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa

- 5.5.1. Birziklatzearen eta hondakinen sorrera indizeen murrizketaren garrantziaren inguruko kontzientziazio neurriak hartu.
- 5.5.2. Birziklatze eta hondakin organikoen edukiontzien beharren eta moldaketen inguruko azterketa bat osatzea.
- 5.5.3. Hondakinen sorrera gutxitzeko beharraren gaineko kontzientziazio neurriak hartzea.
- 5.5.4. Plastiko poltsek eragindako hondakinak gutxitzeko poltsa berrerabilgarriak bultzatzea komertzioetan eta merkatal guneeetan.
- 5.5.5. Froga gisa hondakinak biltzeko edukiontzi berriak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea (zabor organikoa,...).
- 5.5.6. Udalerriko zonalde ezberdinetan hondakinak jasotzeko edukiontzien egiazko beharrak aztertzea, baita hauen kokapena ere.
- 5.5.7. Hondakinen birziklapena eramateko moduaz biztanleriak informatu eta formatu.
- 5.5.8. Durangaldean eta Durangon konpost aurreratua bultzatu.
- 5.5.9. Eskoletan ingurumen hezkuntza neurriekin jarraitzea, bereziki hondakinen alorrean.
- 5.5.10. Hondakin arriskutsuen sortzaile txikien kontrola areagotu (argazki dendak, ...)
- 5.5.11. Festa eta ekitaldi publikoetan hondakinen kudeaketa iraunkorra bultzatu.

P 5.6. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak hobetzeko programa

- 5.6.1. Etxebizitzan ziurtagiri energetikoak egitea bultzatzea.
- 5.6.2. Etxebizitzan, argiztapen publikoaren, komertzioaren eta industriaren eraginkortasun energetikoaren planak osatzea.
- 5.6.3. Instalakuntza publikoetan eta sektore pribatuan energia berriztagarriak bultzatzea.
- 5.6.4. Auditoria energetikoak egitea instalakuntza publikoetan eta eremu pribatuko beste sektoreetan auditoriak egitea bultzatzea.
- 5.6.5. Sektoreetako elkarleen bidez (merkatariaik...) eraginkortasun energetikoaren inguruko sentsibilizazio neurriak hartzea.
- 5.6.6. Hirigintzako jarduera berrientzat, publiko eta pribatuentzat, eraginkortasun energetikorako neurriak txertatzea.
- 5.6.7. Igerileku berrien proiektuan eraginkortasun energetikorako neurriak txertatzea.
- 5.6.8. Eraikuntza araudi batekin bat egiten duten ingurumen hobekuntzarako diru-laguntzak ezarri.

2.4. EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAK

DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21

Ekintzak, fitxa baten bidez aurkezten dira, non ondoko eremuak biltzen diren:

Ekintzen Karakterizazioan Erabilitako Kontzeptuen Deskribapena

KONTZEPTUA	DESKRIBAPENA
Identifikazio kodea	Illo Estrategiko, Ekintza Programa eta Ekintzaren zenbakiaren identifikazioari dagozkion hiru digitu ditu.
Illoa	Ekintza eta Programari dagozkion Illo Estrategikoaren titulu eta zenbakia. Ekintzaren helburu orokorra islatzen du.
Programa	Ekintzari dagokion Ekintza Programaren titulu eta zenbakia. Ekintzaren helburu espezifikoak islatzen du.
Ekintza	Ekintzaren titulua
Deskribapena	Eragina egiten dion faktorearen egoeraren eta ekintzaren helburuen deskribapena, nahiz lortu nahi diren emaitzak
Exekuzio/ezarpen epea	Ekintza garatzeko beharrezko denbora ondoko aldizkakotasunaren arabera: Motza (0-1 urte): Ertaina (1-3 urte): Luzea (3-5 urte):
Maiztasuna	Ekintza egiteko proposaturiko maiztasuna. Ekintza etengabe burutu behar den kasuetan, "jarraitua" hitzarekin azaltzen da.
Aurreikusitako kostua	Burutzeko Ekintzatik estimatzen den kuantifikazio ekonomikoa
Erakundeak	Ekintzaren burutzean inplikaturiko erakundeak
Finantziakzioa	Proposaturiko ekintza burutzeko gastuen finantziakzioa ekarpenak egin ditzaketan erakundeak
Adierazleak	Ekintzarekin zuzenean edo zeharka erlazioa duten Jasangarritasun Adierazleen Sistemaren Adierazlea edo Adierazleak
Exekuzioaren kontrola	Ekintzaren garapen edo ezarpen maila azaltzen du, ondoko klasifikazioaren arabera. Burutu gabe: Ekintzarekin erlazionaturiko ekimenak ez dira martxan jarri. Hasita: Ekintzarekin erlazionaturiko ekimenak egin dira (proiektu fasea, inplikatuarekin koordinazioa etab. Aurreratua: Ekintzarekin erlazionaturiko ekimenak egiten ari dira eta hasierako faseak gainditu dira. Burutua: Bai ekintzaren burutze kontrolaren urtean burutzen denean inbertsioa; nola aldizkako edo etengabeko burutzea duen ekintza bat denean eta ezartzen hasi dena. Amaitua: Burutze kontrolaren urtearen aurrekoan bukatutako ekintzak dira.

EKINTZA FITXAK

1.1.1. Ekintza

Nekazaritza ekologikoa bultzatzea.

Ildoa	1. IE GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATERANTZ GARATZEA		
Programa	P 1.1. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko programa		
Deskribapena	Ekintzaren helburua nekazaritza bultzatzea da eta bereziki nekazaritza ekologikoa, aitortuz sektore honek paisaiaren eta ingurumenaren zaintzan duen garrantzia, kalitate bereiztuko elikagaiak sortzeaz gain. Aldi berean, eta jarduera hau bultzatu asmoz, elikadura eta kontsumo arduratsuaren garrantziaren inguruan pertsonak hezte beharrezkoa dela jasotzen da. Udalak nekazaritza ekologikoa bultzatzeko 2008a aurretik aurrekontuetan onartu beharko du diru kopuru bat laguntzetarako bideratzea edo Fiskalitate Arautegian onurak ezartzea.		
Lehentasuna	Baxua	Exekuzio / ezarpen epea	
		Motza	
Maiztasuna	Jarraitua	Urteak	2008
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€	
Oharrak			
Adierazleak			
Exekuzio kontrola	Burutu gabe		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Udala Esku-hartzea		
Finantziazioa			

2. Iraunkortasunerako Ekintza Plana

1.1.2. Ekintza

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko ustiapenak ezarri nahi dituztenei erraztasunak ematea.

Idoa	1. IE GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATERANTZ GARATZEA		
Programa	P 1.1. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko programa		
Deskribapena	Eraikitako zonaldeak hazi diren neurrian zonalde berdeak desagertu egin dira. Egoera honen aurrean, hiriguneko lurzorua (eraikitakoa) modu eraginkorrean kudeatzea proposatzen da hirigintza lanak jasan dituen lurzorua babestu eta mantentzeko, etorkizuneko nekazariak bera erabili ahal dezaten. Aldi berean, ekintzaren xedea da administrazioak laguntzak eta erraztasunak ematea (lurzorua eskuratzeko, instalakuntzak...) nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenak ezarri nahi dituztenei. Ekintza hau aurrekoarekin zuzenean lotzen da, udalak nekazaritza ekologikoa bultzatzeko 2008a aurretik onartu beharko du aurrekontuetan diru-laguntzak.		
Lehentasuna	Baxua	Exekuzio / ezarpen epea	
		Motza	
Maiztasuna	Jarraitua	Urteak	2008
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€	
Oharrak			
Adierazleak	11 ADIERAZLEA: LANGABEZI TASA		
Exekuzio kontrola			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Udala Esku-hartzea		
Finantzaketa			

2. Iraunkortasunerako Ekintza Plana

1.1.3. Ekintza

Basoen ustiapen iraunkorra bultzatzea.

Ildoa	1. IE GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATERANTZ GARATZEA			
Programa	P 1.1. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko programa			
Deskribapena	Udalak udal basoen ustiapen iraunkorrerako diru-laguntzak eta pizgarriak hitzartu ahalko ditu. Modu berean, ekintza hau kontratazio publikoetan iraunkortasun irizpideak barneratzeko 2.2.8. ekintzarekin zuzenki lotua egon daiteke, bertan irizpide hau ezartzen da higigarriak kontratatzeko.			
Lehentasuna	Baxua	Exekuzio / ezarpen epea		Motza
Maiztasuna	Jarraitua	Urteak	2008	
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€		
Oharrak				
Adierazleak				
Exekuzio kontrola	Burutu gabe			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Udala Idazkaritza Orokorra. Kontratazioa eta Ondarea.			
Finantzaketa				

2. Iraunkortasunerako Ekintza Plana

1.2.1. Ekintza

Industriaren egoera hobetzeko eskualdeko hausnarketa estrategikotik eratortzen diren ekintzak udalerrian abiaraztea.

Ildoa	1. IE GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA		
Programa	P 1.2. Udalerrian industriaren dibertsifikazioa bultzatzeko programa.		
Deskribapena	Udalerrian eta eskualdeko gainontzeko udalerrian dagoen industriaren ezarpena handia da. Beraz, Durangoko pertsona askok lan egiten du industrian. Gaur egun, eskualdeko industriaren ezaugarri dira gutxi dibertsifikatua dela eta auto-mozio sektorearen menpeko dela. Egoera horren aurrean, eta enpresen deslokalizazio arriskuaren aurrean, eskualdean METALGILTZA deitzen den hausnarketa estrategikoa burutzen ari da, atzera bueltarik gabeko egoerak aurreikusi asmoz. Metalgiltza proiektuko partaide direnek Elkartea osatu nahi dute, bere helburu nagusia jada osatua dagoen Durangaldeako industria sektoreko Plan Estrategikoan dauden jarduerak garatzea litzateke.		
Lehentasuna	Ertaina	Exekuzio / ezarpen epea	Luzea
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€	
Oharrak	Orain garatzen ari den Plan Estrategikoak zehaztuko ditu burutu beharreko ekintzak		
Adierazleak	ADIERAZLEA 11: LANGABEZIA TASA		
Exekuzio kontrola	Burutu gabe		
Jarraipenaren / exekuzioaren erantzukizuna	Udala		
Finantzaketa			

2. Iraunkortasunerako Ekintza Plana

1.2.2. Ekintza

Energia berriztagarriez arituko diren enpresen instalazioa bultzatu.

Ildoa	1. IE GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA.			
Programa	P 1.2. Udalerrian industriaren dibertsifikazioa bultzatzeko programa.			
Deskribapena	Ekintza honen bitartez energia berriztagarriez arituko diren edo sektore horretan ikertuko duten enpresen instalazioa bultzatu nahi da. Udalak 2008 aurretik aurrekontuetan diru kopuru bat zehaztu beharko du laguntza gisara edo onurak txertatu beharko ditu Araudi Fiskaletan energia berriztagarriez arituko diren enpresentzat.			
Lehentasuna	Baxua	Exekuzio / Ezarpen epea		Motza
Maiztasuna	Jarraitua	Urteak	2008	
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€		
Oharrak				
Adierazleak	ADIERAZLEA 11: LANGABEZIA TASA			
Exekuzio kontrola	Burutu gabe			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Udala Esku-hartzea			
Finantzaketa				

2. Iraunkortasunerako Ekintza Plana

1.2.3. Ekintza

Birziklapenaz arituko diren enpresen instalazioa bultzatu.

Ildoa	1. IE GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA.			
Programa	P 1.2. Udalerrian industriaren dibertsifikazioa bultzatzeko programa.			
Deskribapena	Ekintza honen bitartez birziklatzeaz arituko diren edo sektore horretan ikertuko duten enpresen instalazioa bultzatu nahi da. Udalak 2009 aurretik aurrekontuetan diru kopuru bat zehaztu beharko du laguntza gisara edo onurak txertatu beharko ditu Araudi Fiskaletan energia berriztagarriez arituko diren enpresentzat.			
Lehentasuna	Baxua	Exekuzio / ezarpen epea		Motza
Maiztasuna	Jarraitua	Urteak	2009	
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€		
Oharrak				
Adierazleak	ADIERAZLEA 11: LANGABEZIA TASA			
Exekuzio kontrola	Burutu gabe			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Udala Esku-hartzea			
Finantzaketa				

2. Iraunkortasunerako Ekintza Plana

1.2.4. Ekintza
Udalerrian artisauen industriak bultzatu.

Idoa	1. IE GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA.			
Programa	P 1.2. Udalerrian industriaren dibertsifikazioa bultzatzeko programa.			
Deskribapena	Udalak 2009 aurretik aurrekontuetan diru kopuru bat zehaztu beharko du laguntza gisara edo onurak txertatu beharko ditu Araudi Fiskaletan artisautzan arituko direnentzat.			
Lehentasuna	Baxua	Exekuzio / ezarpen epea		Motza
Maiztasuna	Jarraitua	Urteak	2009	
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€		
Oharrak				
Adierazleak	ADIERAZLEAK 11: LANGABEZIA TASA			
Exekuzio kontrola	Burutu gabe			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Udala Esku-hartzea			
Finantzaketa				

2. Iraunkotasunerako Ekintza Plana

2.1.1. Ekintza
Parte-hartze protokoloa adostu.

Ildoa	IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.						
Programa	P 2.1. Udalerriaren kudeaketan parte-hartzeko bultzatzeko programa						
Deskribapena	Hiritarren parte-hartzea arautuko duen araudia onartzea da xedea, bertan parte-hartzea bultzatu eta arautu nahi da, bai udal organoetan (osoko bilkurak, batzordeak...) eta baita Udalaren sektorerako eremu ezberdinetan ere (batzorde aholkulariak, Tokiko Agenda 21en Foroa...). Araudi hau 2007an onartuta egon beharko du.						
Lehentasuna	Altua		Exekuzio / ezarpen epea			Motza	
Maiztasuna	Puntuala		Urteak	2007			
Aurreikusitako kostua	Euroak	GUZTIRA: 1 2 . 0 0 0 € 2007: 12.000					
Oharrak							
Adierazleak	ADIERAZLEA 12: TOKIKO KOMUNITATEAREKIKO BIZTANLERIAK DUEN ASEBETETZE MAILA (Udalerriko planifikazio eta erabaki prozesuetan parte-hartzeko aukerak)						
Exekuzio kontrola	Burutu gabe						
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Udala Idazkaritza Orokorra						
Finantzaketa							

2.1.2. Ekintza

Aurrekontu parte hartzaileak egiteko modua aztertu.

Ildoa	IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.			
Programa	P 2.1. Udalerriaren kudeaketan parte-hartzeko bultzatzeko programa			
Deskribapena	Aurrekontu parte-hartzaileen tresnaren bitartez biztanleriak parte hartu dezake Udalaren aurrekontuaren planifikazio eta eztabaidan; adibidez, udalak erabakitzen du zenbait baliabide erabili behar diren iraunkortasuna hobetzeko eta zertarako erabili behar diren, beti ere hiritarren iritzia kontuan hartuz. Ekintza 2.1.1. ekintzarekin zuzenki lotua izan beharko da			
Lehentasuna	Ertaina	Exekuzio / ezarpen epea		Motza
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2008	
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€		
Oharrak				
Adierazleak	ADIERAZLEA 12: TOKIKO KOMUNITATEAREKIKO BIZTANLERIAK DUEN ASEBETETZE MAILA (Udalerriko planifikazio eta erabaki prozesuetan parte-hartzeko aukerak)			
Exekuzio kontrola	Burutu gabe			
Jarraipen / ezarpen erantzukizuna	Udala Esku-hartzea			
Finantzaketa				

2.2.1. Ekintza

Funtzionarioentzat arretarako protokoloa ezarri.

Ildoa	IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.			
Programa	P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa			
Deskribapena	Ekimen honen bitartez Udalean eta Udalarentzat lan egiten duten pertsonen eskutik Durangoko herritarrek tratatu zuzena jasotzea bilatzen da. Adibidez, administrazioan lan egiten dutenek errealitate soziala osatzen duten eta harreman sozialen kalitatea hobetzen duten eremuetan euren ezagutza zabaltzeko honako gaien inguruko ikastaro / tailerrak antolatu ahalko lirateke: garapen pertsonala, sentsibilizazioa, gaitasun sozialetan entrenamendua, pertsona arteko harremanak, genero bortizkeria eta abar. Aurrekontuetako diru kopuru bat funtzionarioen gaitasun sozialen formakuntzarako bideratuko da,....			
Lehentasuna	Ertaina	Exekuzio / ezarpen epea		Luzea
Maiztasuna	Luzea	Urteak	2007-2010	
Aurreikusitako kostua	Euroak	GUZTIRA: 20.000€ 2007: 20.000€		
Oharrak				
Adierazleak	ADIERAZLEA 19: BIZTANLERIA-ADMINISTRAZIOA HARREMANA			
Exekuzio kontrola	Burutu gabe			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Udaleko Giza Baliabideak			
Finantzaketa	Udala			

2.2.2. Ekintza

Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta funtzioak aztertu eta beste enpresei azpikontratatzeko zaizkienak.

Ildoa	IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.			
Programa	P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa			
Deskribapena	Hiritarrentzako zerbitzuetara lotutako kontratuen erregistroa osatzea eta Udalak zuzenean, bestelako bitartekaririk gabe, eskaintzen dituen zerbitzuak identifikatzea.			
Lehentasuna	Ertaina	Exekuzio / ezarpen epea		Motza
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007	
Aurreikusitako kostua	Euroak	0€		
Oharrak	Durangoko Udalak urtero egiten duen kontratu administratiboen zerrenda bada. Ekintza hau burutzeko egin beharreko bakarra biztanleriarekin harremana dagoen kontratu horiek (zerbitzu publikoaren kudeaketa, orohar) eta Udalak zuzenean, bere langileria antolakuntzaren bitartez, eskaintzen dituen zerbitzuak identifikatzea litzateke.			
Adierazleak				
Exekuzio kontrola	Aurreratua			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Idazkaritza Orokorra. Kontratatzeko eta Ondasuna.			
Finantzaketa	Emandako zerbitzuen identifikazioak eta kontratu administratiboa dutenek ez dute finantzaketarik behar.			

2.2.3. Ekintza

Hiritarren arretarako zerbitzua ezarri, eta bere izatea iragarri.

Ildoa	IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.		
Programa	P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa		
Deskribapena	Hiritarren arretarako zerbitzua hiritarrek Udalari egiten dizkioten eskariei arreta egiteko zerbitzu pertsonalizatua da. Hiritarrari egindako arreta egokia eskainitako zerbitzuaren kalitatearen oinarritzko elementua da, horrekin, pertsona erabiltzailearekin komunikazioa hobetzea eta arreta eskatzen duen gaia behar bezala konpontzea dira helburua. Zerbitzu honek publikoarekin arreta hobetuko luke, aldi berean normalizatu daitezken izaera orokorreko eskaera guztiak konpondu ahalko lirateke. Modu berean, eskariei azkarrago eta modu egokiagoan erantzungo zitzaien, eta gainera, informazioa bideratuko litzateke interesa duen pertsona, noraezean batetik bestera bere eskariak konpondu asmoz ibili beharrik gabe. Behin hiritarren arretarako zerbitzua abiarazita, bere izatea iragartzea proposatzen da, nola funtzionatzen duen eta dituen abantailak ezagutarazteko erabiltzaile izango diren pertsonen.		
Lehentasuna	Altua	Exekuzio / ezarpen epea	
		Motza	
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007
Aurreikusitako kostua	Euroak	GUZTIRA: 90.000€ 2007: 90.000€	
Oharrak			
Adierazleak	ADIERAZLEA 19: BIZTANLERIA-ADMINISTRAZIOA HARREMANA		
Exekuzio kontrola	Burutu gabe		
Jarraipen / Exekuzio erantzukizuna	Informatika		
Finantzaketa			

2.2.4. Ekintza

Tokiko Agenda 21 prozesuaren berri eman hiritarrei eta udal teknikariei parte-hartzearen garrantziaz.

Ildoa	IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.			
Programa	P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa			
Deskribapena	Durangoko Tokiko Agenda 21 prozesua hedatzea proposatzen da eta prozesu horretan burutu diren ekintzak, momentu bakoitzean ekintza horiek duten garapen maila azalduz. Adibidez, dokumentu laburtu bat osatu ahalko litzateke prozesuaren nondik norakoak azalduz eta adostutako ekintzak barneratuz, eta material hori biztanleriaren artean banatu.			
Lehentasuna	Altua	Exekuzio / ezarpen epea		Luzea
Maiztasuna	Urtean behinekoa	Urteak	2007-2008-2009-2010	
Aurreikusitako kostua	Euroak	GUZTIRA: 100.000€ 2007: 40.000€ 2008: 20.000€ 2009: 20.000€ 2010: 20.000€		
Oharrak				
Adierazleak				
Exekuzio kontrola	Burutu gabe			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Ingurumena – Agenda 21			
Finantzaketa				

2.2.5. Ekintza

Udalerriko eremu estrategikoetan interes orokorreko informazioa zabaltzeko panelak ezarri
(Irungo adibidea aztertu).

Ildoa	IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.			
Programa	P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa			
Deskribapena	Ekintza honen bitartez egun indarrean dauden udal informazio kanalak zabaltzeko nahi dira, modu horretan, Durangoko puntu estrategikoetan informazio panelak ezarri interes orokorreko albisteen hedapena bermatuz. Ekintza hau burutzeko Udalari antzeko esperientziak (adibidez Irungoa) kontuan hartzea proposatzen zaio, erreferentzia izan ditzakeelako.			
Lehentasuna	Ertaina	Exekuzio / ezarpen epea		Motza
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2008	
Aurreikusitako kostua	Euroak	GUZTIRA: 50.000€ 2008: 50.000€		
Oharrak				
Adierazleak				
Exekuzio kontrola	Burutu gabe			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Informatika			
Finantzaketa	Udala IHOBE			

2.2.6. Ekintza
Udalerriko web orria dinamizatu.

Idoa	IE 2. UDALEKO KUDEAKETA POLITIKA HOBETU.			
Programa	P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa			
Deskribapena	Ekintza honen bitartez web orria dinamizatu nahi da erabiltzaileari orriko edukiarekin modu interaktiboan aritzea ahalbidetzeko. Helburua da web orriak Udalaren informazioa eskaintzea eta baita interes orokorreko (ekintzak eta jarduerak) informazioa duten atalak izatea ere. Bestalde, interesgarria da informazioa eguneratua izatea eta Durangoko web orriak eskaintzen dituen aukerak biztanleriaren artean ezagutaraztea.			
Lehentasuna	Ertaina	Exekuzio / ezarpen epea		Luzea
Maiztasuna	Jarraitua	Urteak	2007-2008-2009-2010	
Aurreikusitako kostua	Euroak	GUZTIRA: 120.000€ 2007: 30.000€ 2008: 30.000€ 2009: 30.000€ 2010: 30.000€		
Oharrak				
Adierazleak				
Exekuzio kontrola	Aurreratua			
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Informatika			
Finantzaketa				

2.2.7. Ekintza

